

Ebazpena: R059/2023

Espedientea: E03/2019

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka planteatu du batzorde honetan, ez dagoelako ados Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) emandako irizpide batekin, HSA zergadunak 2016tik aurrera egindako eragiketen kokalekuari buruz egindako kontsultari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 3/2019 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- HSAk, 2016ko maiatzaren 22ko idazkiaren bidez, kontsulta bat egin zion Zergen Zuzendaritza Nagusiari, bere eragiketek urte hartatik aurrera izango zuten kokapenari buruz.

Kontsultan planteatzen zenez, HSAk Madrilen dauka egoitza soziala, eta eraldatu gabeko etxetresna elektrikoak saltzen dizkie, handizka, txikizkako

dendei. Horretarako, bolumen handiak erosten dizkie hainbat fabrikatzailei. Eragiketa-bolumenak 7.000.000 euroak gainditzen ditu.

Jarduera Euskal Autonomia Erkidegora zabaltzeko asmoz, 2015ean biltegi bat alokatu zuen, eta alta eman zien lurralde horretan jarduten duten komertzialeari; hala, BFAn zergak ordaintzen hasi zen, eragiketa-bolumenaren proportzioan.

Administrazio-eragiketa batzuk (erosketak, kontabilitatea, finantzen zuzendaritza) Madrilen egiten zituzten, baina foru-lurraldeko merkaturatze-lanak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ziren.

2016an, arrazoi operatiboak tarteko, Bizkaiko biltegia utzi zuten, eta komertzialak Bizkaiko beste lantoki batera atxiki ziren. Hala, etxetresna elektrikoak lantoki horretara garraiatzen zituzten Madrildik, gero bezeroengana iritsi zitezten.

Kontsultatzaileak jakin nahi zuen ea BFAn zergak proportzioan ordaintzen jarraitu behar zuen.

2.- 2018ko irailaren 4an, OFPMk honako gai hauei buruzko erantzuna bidali zuen:

«a.- ... kontsultatzaileak etxetresna elektrikoak nondik entregatzen dituen zehazteko, aztertu beharko da ondasunak gordetzen diren tokian balio erantsirik gaineratzen ote zaion merkaturatze-prozesuari edo, bestela, toki horretan egiten diren eragiketak osagarriak edo garrantzirik gabekoak ote diren prozesu horrekiko. Horrela bada, merkaturatze-lanak zein tokitan egiten diren hartu beharko da kontuan, garraiatzen hasi aurretik ondasunak materialki edo fisikoki non dauden gorabehera.

Ondorioz, Pintoko biltegian, salgaiak dauden tokian, enpresak eragiketa osagarriak eta oso garrantzi gutxikoak egiten baditu eta, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen diren salgaiak merkaturatzeko lanak Bizkaiko lantoki batean zentralizatzen badira, ondasunak toki horretatik entregatzen direla balioetsi beharko da, bat etorrita Auzitegi Gorenak aipatutako epaietan Itunaren 28. artikuluari egiten dion interpretazioarekin. Pintoko biltegian egiten diren lanak esanguratsuak badira eta toki horretan merkaturatze-prozesuari balio erantsia gaineratzen zaiola ulertzen bada, ulertu beharko da ondasun-emateak biltegi horretatik egiten direla.

b.- Aurrekoa zehazteko, kontuan hartu behar da salgaiak saltzeko kudeaketek ematen dutela balio erantsirik handiena merkaturatze-prozesuetan; berez, erosleekin zuzeneko harremana dutenak dira kudeaketa garrantzitsuenak.

Hortaz, kontrakoa frogatu ezean eta lehen esandakoaren arabera, foru-lurraldean salmenta-puntu bat dagoenez, printzipioz, hortxe ematen zaio balio erantsi handiena salgaien merkaturatze-prozesuari.

Itunaren 28. artikuluan ezartzen den lotunearen interpretazioaren bidez zehaztu nahi bada ondasunak non entregatzen diren, izatezko zenbait kontu hartu behar dira aintzat; entitate kontsultatzaileak berak aztertu eta baloratu beharko ditu alderdiok, eta, hala badagokio, eskudun administrazioak egiaztatuko ditu, egokitzen diren zerga-prozeduren esparruan».

OFPMk erantzun-proposamena bidali zion Eusko Jaurlaritzari.

3.- 2018ko urriaren 30ean, EZKOk ados ez zegoela adierazi zuen.

BFAk gatazka planteatzeko bidali zuen idazkian, oharrak bestelakoak dira, eta honela laburbil ditzakegu:

«a.- ... Auzitegi Gorenak ez du adierazi garraioaren hasierari buruzko araua ezin daitekeenik aplikatu, eta ez du besterik gabe baieztatu Ekonomia Itunaren 28.Bat.a) artikularen 1. zenbakian xedatzen den ondasun-emateari buruzko araua lotu egin behar denik salgaiak merkaturatzen diren tokiarekin.

Auzitegi Gorenak ezarri duen bakarra da garraioaren hasierari buruzko araua ez dela aplikatu behar, baldin eta enpresak ez badu jarduera garatzen salgaiak une horretan dauden tokian eta toki horretan ez badu egiten salgaien balioa areagotzeko lanik.

Araua aplikagarria izango da, besteak beste, merkaturatzaileak jarduera modu egonkor eta jarraituan egiten duen toki batean hasten bada garraioa, instalazioa berea nahiz alokatua izan, edo instalazio horretan balio erantsia gaineratzen badio zergapetutako merkaturatze-prozesuari.

b.- Halaber, ez du esan merkaturatze-prozesuetan salmenta-kudeaketek gaineratzen dutenik balio erantsi handiena; printzipioz, erosleekin zuzeneko harremana duten lanak dira esanguratsuenak. Hortaz, salmenta-puntu bat dagoenean, kontrakoa frogatu ezean, toki hori izango da salgaien merkaturatze-prozesuari balio erantsi handiena gaineratzen diona».

Hori horrela, honako hau uste du: «Planteatu den kasuan, kontsultatzaileak Pinton (Madril) dauzka egoitza fiskala eta jardueren egoitza nagusia, eta, gainera, salgaien jarduera logistikoak zentralizatzen dituen biltegi propioak

dauzka hor. Horrenbestez, baldintza horietan, ez zaio begiratu behar Bizkaiko lantokira atxikitako merkaturatzaileek lan egiten duten tokiari, eragiketen zati bat toki horretan kokatzeko: lan guztiak Madrildik egiten direla ulertu behar da, salgaiak hantxe egoten direlako bezeroei emate aldera garraiatu baino lehen eta konpainiak bere jabetzako instalazio horietan garatzen dituelako ekonomia-jarduerak (guztiak, Bizkaiko lantokira atxikitako komertzialek egiten dituztenak izan ezik). Beraz, inola ere ezingo da ulertu Pintoko instalazioetan ez zaionik baliorik gaineratzen zergapetutako merkaturatze- eta banaketa-prozesuari».

4.- 2018ko abenduaren 19an, OFPMk beste proposamen bat bidali zuen, funtsean aurreko irizpideari eutsiz.

5.- Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak ez zuenez erabakirik hartu, BFAk gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari 2019ko urtarrilaren 19an, eta 3/2019 espediente-zenbakiarekin izapidetu dugu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei dagokienez:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazioek ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- BFAren legitimazioa

BFAk uste du legitimatuta dagoela gatazka Arbitraje Batzordean aurkezteko, bi arrazoiengatik:

- Alde batetik, uste duelako eman beharreko ebazpenak BFAren ordainarazpen-eskumenari eragingo diola, oinarri bera duten beste kasu batzuetan.
- Bestetik, BFA Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan ordezkaturako administrazioetako bat delako.

Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua honako hau xedatzen du:

«Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi

hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

64.b) artikulua «ukitutako beste edozein administraziori» buruzkoa da, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, badirudi autonomia-erkidegoko administrazioaz gain foru-administrazioak ere sartzen direla.

Izan ere, EAEn solaskidetza Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari ematen zaio, eta organo horretan Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundiak daude ordezkaturak.

Ikuspegi horretatik, onargarria dirudi BFAk gatazka aurkezteko legitimitate aktiboa izatea.

Egia esan, BFAren lehenengo argudioak zuzenean aipatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4.1 artikulua hirugarren interesduntzat hartzen duela, eta horrek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsua jartzeko legitimazioa emango lioke, 29/1998 Legearen 19.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera; beraz, beharrezkoa da Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean gauzatzen den alde aurreko administrazio-prozedurarako sarbidea izatea,

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 54. artikuluan jasotzen den zentzu berean.

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Abiapuntu gisara, adierazi beharra dugu kontsultak ez dituela biltzen argi eta garbi erantzun ahal izateko xehetasun guztiak, eta ez dauka zentzurik enpresaren Madrilgo instalazioetan egiten diren jardueren eta komertzialen jardueraren garrantzia ikuspegi teoriko batetik haztatuko duen erantzun baldintzaturik emateak. Gainera, BFAk esan bezala, erosketa-, administrazio- eta finantzaketa-jarduerek eta abarrek ere balioa gaineratzen dutela uler liteke.

Bestetik, orain erantzuteak ez luke beteko zerga-kontsultaren asmoa, 2016an zerga-betebeharrak betetzeko orduan segurtasun juridikoa ematea baitzen asmo hori.

Nolanahi ere, ez dirudi administrazioen artean desadostasunik egon denik zergapekoak 2016an eta hurrengo urteetan zerga-betebeharrak betetzeko moduari dagokionez, ez dagoelako urte horiei buruzko akta bakarren inguruko gatazkarik ebazteke.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, gerora xedea galdu delako: kontsultak ezin du berezko xedea bete.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta HSAr jakinaraztea.